

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

5510

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 30ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen den hirugarrenez aldatzea energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren dotazioa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU), 2021eko irailaren 22ko Ebazpenaren bidez ezarria, eta argitara ematea aldaketa horren ondoriozko aurrekontu-zuzkidura.

I.– Ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren bidez (zeinaren bidez onartzen baita autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzeneko dirulaguntzak ematea energia berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari loturiko pizgarri-programa batzuk gauzatzeko, bai eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutakoak ere, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. 2021eko ekainaren 30eko BOE, 155. zk.) ezarri ziren energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarriak emateko oinarri arautzaileak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. 477/2021 Errege Dekretuak banaketa-irizpideen arabera aurreikusitako laguntzak zuzenean ematea erabaki zuen, bai eta diruz lagundu daitezkeen jarduerak finantzatzeko funtsen banaketa ere, 660 milioi euroko zenbatekoa zena. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, 37.173.437 eurokoa zen.

II.– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpenaren bidez (2021eko urriaren 1eko EHAA, 197. Zenbakia), energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartu, deitu eta argitaratu ziren, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU).

III.– Ondoren, aldatu egin zen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarrien edukia, honako hauen bidez:

– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2022ko apirilaren 20ko Ebazpena, 2021eko irailaren 22ko Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, onetsi, argitaratu eta deitu egin ziren energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU (EHAA, 84. zenbakia, 2022ko maiatzaren 3koa).

– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2022ko ekainaren 29ko Ebazpena, 2021eko irailaren 22ko Ebazpena bigarren aldiz aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, onetsi, argitaratu eta deitu egin ziren energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU (EHAA, 137. zenbakia, 2022ko uztailaren 15ekoa).

IV.– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2022ko uztailaren 8ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren dotazioa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finan-

tzatua – NextGenerationEU), Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpenaren bidez ezarria, eta argitara eman zen aldaketa horren ondoriozko aurrekontu-zuzkidura, (EHAA, 143. zenbakia, 2022ko uztailaren 26koa).

Aipatutako Ebazpen horretan jasotako diru-kopurua handitzeak bi jatorri bereizi zituen:

a) Alde batetik, 37.173.436,99 euroko zenbateko gehigarria, IDAeko presidentek 2022ko ekainaren 10ean emandako Ebazpenaren bidez gauzaturakoa. Ebazpen horretan, Euskal Autonomia Erkidegoari 37.173.436,99 euroko zenbateko gehigarria ematea erabaki zen, ziren energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programarentzat, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU.

b) Bestalde, PRTR funtsetatik datozen baliabideen zenbateko gehigarri eta osagarria, 20.000.000 eurokoa, EEEn berezko baliabideena.

V.– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2023ko apirilaren 5eko Ebazpenaren bidez, berriz esleitu zen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, pizgarri-programa bakoitzari dagokion zenbatekoa, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutakoa, 2021eko irailaren 22ko Ebazpenaren bitartez ezarria.

Pizgarrien Programaren 3. oinarrian aurreikusitako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (66.784.314,28 euro) konturako zuzkidura ekonomikoa pizgarri-programa bakoitzerako zenbateko hauen arabera banatu zen:

1. pizgarri-programa – Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioak egitea, zerbitzuen sektorean, biltegiratzearekin edo biltegiratzerik gabe.	7.913.045,65 €
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	6.857.485,83 €
8. osagaia – Biltegiratze-kategoria	1.055.559,82 €
2. pizgarri-programa – Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioak egitea, ekonomiaren beste ekoizpen-sektore batzuetan, biltegiratzearekin edo biltegiratzerik gabe.	19.319.429,95 €
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	17.502.218,37 €
8. osagaia – Biltegiratze-kategoria	1.817.211,58 €
3. pizgarri-programa – Zerbitzu-sektorean eta beste ekoizpen-sektore batzuetan lehendik zeuden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioetan, biltegiratzea sartzea (8. osagaia).	3.219.188,47 €
4. pizgarri-programa Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioak egitea etxebizitza-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, biltegiratzearekin edo biltegiratzerik gabe.	27.264.150,17 €
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	20.692.288,79 €
8. osagaia – Biltegiratze-kategoria	6.571.861,38 €
5. pizgarri-programa – Etxebizitza-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik zeuden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioetan, biltegiratzea sartzea (8. osagaia).	238.411,45 €
6. pizgarri-programa – Energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea etxebizitza-sektorean (7. osagaia).	8.830.088,59 €

VI.– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2023ko urriaren 11ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitazeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren dotazioa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU), Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpenaren bidez ezarria, eta argitara eman zen aldaketa horren ondoriozko aurrekontu-zuzkidura (EHAA, 204. zenbakia, 2023ko urriaren 25ekoa), 12.242.486,40 euroko zenbateko gehigarriarekin (zegozkion zeharkako gastuak kendu ondoren; alegia, 378.633,60 euro), Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargura emandako funtsetatik jasoak.

VII.– 477/2021 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, eta horretarako eskaera egin ondoren, IDAEko presidentek 2023ko azaroaren 10ean emandako Ebazpenaren bidez gauzaturakoa, Euskal Autonomia Erkidegoari 29.128.709,00 euroko zenbateko gehigarria ematea erabaki zen, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargura, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitazeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa ezartzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpenaren 3. oinarria aldatzea. Ebazpen horren bidez, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitazeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartu, deitu eta argitaratu ziren, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (EHAA, 197. zenbakia, 2021eko urriaren 1ekoa).

Aldaketa horren ondorioz, hasiera batean pizgarrien programa honetarako zen zuzkidura ekonomikoa handituko da, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kontura, honela:

a) 27.738.773,55 euroko gehikuntza (1.459.935,45 euroko zeharkako gastuak kendu ondoren), Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargura emandako funtsetatik datorrena, 477/2021 Errege Dekretuaren 10.3 artikuluan jasotakoa aplikatuz eta IDAEko lehendakariak 2023ko azaroaren 10ean emandako Ebazpenean ezarritakoarekin bat etorriz.

b) Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kontura pizgarri-programa honetara bideratutako gehikuntza horren ondoriozko zuzkidura ekonomikoa (106.765.574,23 euro) pizgarri-programa bakoitzerako zenbateko hauen arabera banatuko da:

1. pizgarri-programa – Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioak egitea zerbitzuen sektorean, biltegitazeari edo biltegitazeari gabe.	15.294.559,90 €
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	6.857.485,83 €
8. osagaia – Biltegitazeari-kategoria	1.055.559,82 €
31. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria / Biltegitazeari-kategoria	7.381.514,25 €
2. pizgarri-programa – Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioak egitea ekonomiaren beste ekoizpen-sektore batzuetan, biltegitazeari edo biltegitazeari gabe.	20.417.222,40 €
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	17.502.218,37 €
8. osagaia – Biltegitazeari-kategoria	1.817.211,58 €
31. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria / Biltegitazeari-kategoria	1.097.792,45 €

3. pizgarri-programa –Zerbitzu-sektorean eta beste ekoizpen-sektore batzuetan lehendik zeuden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioetan, biltegitratzea sartzea (8. osagaia).	3.219.188,47 €
4. pizgarri-programa – Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioak egitea etxebizitza-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.	54.279.802,12 €
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	28.192.288,79 €
8. osagaia – Biltegitratze-kategoria	7.908.141,38 €
31. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria / Biltegitratze-kategoria	18.179.371,95 €
5. pizgarri-programa –Etxebizitza-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik zeuden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioetan, biltegitratzea sartzea (8. osagaia).	339.405,00 €
6. pizgarri-programa – Energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea etxebizitza-sektorean (7. osagaia).	13.215.396,34 €

Bigarrena.– Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargurako zuzkidura ekonomikoaren hirugarren gehitze edo handitze horren eta EEEren aurrekontuetan esleituta eta EEEK funts propioak dituzten Pizgarrien Programara bideratu zuen gehienezko eta osagarritzko zenbatekoaren (20.000.000 euro) arteko osagarritasun-araubideari dagokionez (Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2022ko uztailaren 8ko Ebazpenaren bitartez. EHAA, 143. zenbakia, 2022ko uztailaren 26koa), ebazpen horren bigarren ebazpen-zatian xedatutakoa beteko da.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikularekin bat etorritik, ebazpen hau osorik argitaratzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Laugarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Bilbao, 2023ko azaroaren 30a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.